# BIKIN BATIN  kanta

Toberaren soinuak zulatu du Agiña

Mairu baratzeetatik sentitzeko adina

Altzairuzko oinarria intxaurra(re)n hosto arina

Zer izan nahi genuke orain oroimen bagina, Agiña, adina,

Hosto arina, Agiña, adina, bagina

**Bikin bat in, batin biak, ume baten bi sendiak**

**Bikin bat in, batin biak errekak eta mendiak**

**Oinez Lesakan erditu Tantirumairuk bi ditu**

**Zortzi, zazpi, sei, bortz, lau, hiru bikin bat in!**

Adiskide, bide lagun, ikaskidea

Euskara da gure, zure eta nirea

Ttiki-ttaka ttipi-ttapa oroimenaren bidea

Zer ginen jakin behar da, izateko librea, bidea, nirea,

Ikaskidea, bidea, nirea, librea

**Bikin bat in, batin biak, ume baten bi sendiak**

**Bikin bat in, batin biak errekak eta mendiak**

**Oinez Lesakan erditu Tantirumairuk bi ditu**

**Zortzi, zazpi, sei, bortz, lau, hiru bikin batin! (X2)**